

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIORECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEO

ECONOMIA Y HACIENDA

**CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES**

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO Y VIVIENDA

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

VII-IX mendei buruzko Lizarrako Erdi Aroko Azterketa Astearen XXXIX. edizioa hasi da

"Mahomatik Carlomagnora arte. Lehenengo garaiak (VII-IX mendeak)" tituluarekin, uztailearen 17tik 20ra bitarteko Astean gai horretako Erdi Aroko aditu nagusiak bilduko dira

Martes, 17 de julio de 2012

"Mahomatik Carlomagnora arte. Lehenengo garaiak (VII-IX mendeak)" tituluarekin hasi da gaur Lizarrako Erdi Aroko Azterketa Astearen 39. edizioa. Ekitaldia Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak antolatu du Batzorde Zientifikoaren aholkularitzaz eta Lizarrako Udalaren, Donejakue Bideko Lagunen Elkartearen eta Lizarreriako Azterketa Zentroaren laguntzarekin. Gaur hasi den edizioan, gai honetako Erdi Aroko aditu nagusiak bilduko dira uztailearen 17tik 20ra.

Philippe Sénac irakaslearen (Université de Toulouse II-Le Mirail), "Mahoma eta Carlomagno Espainian. Gerra eta bakearen artean: diplomazia eta negozioa" izeneko hitzaldia da programa osatzen duten 13 hitzaldi eta 6 mahai-inguruetatik lehenengoa.

Zikloa honako irakasle hauek osatzen dute: Laurent Feller (Université Paris I Panthéon-Sorbonne), Françoise Micheau (Université Paris I Panthéon-Sorbonne), Philippe Depreux (Université de Limoges / Institut universitaire de France), Carlos Laliena (Zaragozako Unibertsitatea), Ricardo Izquierdo (Gaztela Mantxako Unibertsitatea), Alexandra Chavarria (Università di Padova), Pablo de la Cruz Díaz (Salamanca Unibertsitatea), Eduardo Manzano (Historiaren Institutua-Ikerketa Zientifikon Goi Kontseilua), Pierre Guichard (Université Lumière-Lyon II), Sonia Gutiérrez (Alacant-eko Unibertsitatea), Juan José Larrea (UPV-EHUko Unibertsitatea), Cyrille Aillet (Université Lumière-Lyon II), Fátima Martín (Madrilgo Unibertsitate Konplutense), Pascual Martínez (Valladolideko Unibertsitatea), María Paz de Miguel (Alacant-eko Unibertsitatea), José Avelino Gutiérrez (Oviedo-ko Unibertsitatea) eta Eloísa Ramírez (Nafarroako Unibertsitate Publikoa).

Erdi Aroko Azterketen Astea

Erdi Aroko Azterketen Astea lehen edizioa 1963an izan zen, eta Lizarrako Donejakue Bideko Lagunen Elkarteak antolatu zuen. Lehen urteetatik, Vianako Printzea erakundea ekimenarekin elkarlanean hasi zen eta 1966an haren gastu eta antolaketa zati bat bere gain hartu zuen.

Lehen etapa horretan, "udako unibertsitate" antzeko bat garatu nahi izan zen uztaileko bigarren hamabostaldian zehar. Garrantzi berezia izan zuten Erakundearen orduko lehendakari Francisco Beruete-k eta Zaragozako Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako katedradun José María

Lacarra-k.

Hemezortzigarren edizioaren ospakizunarekin, laurogeita hamarreko hamarkadan, Asteak beste bide bat hartu zuen. Asteko eduki akademikoez arduratuko den Batzorde Zientifiko bat sortu zen, eta Kulturako Zuzendaritza Nagusia arduratuko da antolakuntzaz, bere kultura jarduera propioen artean sartzen duena. Harrezkero, etengabe ospatu izan dira, eta aldi berean aktak argitaratzen dira.

Nafarroako Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako katedradun Ángel Martín da batzorde zientifikoaren buru. Nafarroako Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako katedradun Juan Carrasco da lehendakariordea. Batzordekideak, berriz, honako hauek dira: Zaragozako Unibertsitateko Erdi Arokoko Historiako katedradun J. Ángel Sesma; Oviedoko Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako katedradun Juan Ignacio Ruiz de la Peña; Valladolideko Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako katedradun Pascual Martínez; Euskal Herriko Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako katedradun José Ramón Díaz de Durana; Tolosako Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako katedradun Philippe Sénac; eta Nafarroako Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako irakasle titular Jaume Aurell. Batzorde Zientifikoko idazkaria Nafarroako Unibertsitate Publikoko Erdi Aroko Historiako katedradun Eloísa Ramírez da.